

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko ekainaren 13a



Tafallako Garces de los Fayos ikastolako zenbait haur, andereñoekin.

Ikastolen lehen urratsak gogoan

■ Joan den ostiralean 25 urteko historia biltzen duen liburua aurkeztu zuen Altsasuko Iñigo Aritza ikastolak, eta gauza bera egin zuen Tafallakoak orain dela aste batzuk. Ez dira bakarrak, gainera, Tafallakoa bezala 1970. urtean sortu Iruñeko San Fermin ikastolak, Etxarrikoak, Elizondokoak eta Lizarrakoak ere ordura arteko gora-beherak jasotzen zituen liburu bana plazaratu baitzuten 25. urtemuga betetzean. Eta liburu horietako guztietako lerro gehienek, Jesus

Atxaren oroimena dute informazio iturri. Hainbat urtez San Fermin ikastolako zuzendari izan zen Atxa, eta, handik, Nafarroako herri askotako ikastolei eman zien bultzada. Ikastolen alde egindako lanagatik, hain zuzen, Euskalerrria Irratiak emandako Larreko saria jasoko du gaur gauean Jorge Cortes Izal otsagiarrak. Altsasu eta Tafallako ikastolek berriki egin bezala, ikastolen hasierako urratsak egin zituztenen oroitzapenak berriro ditugu guk ere. ■

Metropoli forala

FELIPE RIUS



Al Pacino, gorraren bisera atzerantz jarrita eta arropa zabalez jantzirik —New Yorkeko estiloa, Auzmendi gringo batek sortua nonbait—, ume batekin jolasean dago bere jazkera bezain neoyorkinoa den zementuzko basket-zelai batean (zelaia nolabait esatearren) eta baloia saskian sartzen saiatzen den bitartean offeko ahots sakon batek ametsak zerez eginda ote dauden galdetzen dio bere buruari-ikusleari. Zuzendari-aktoreak eszenatoki batean eta pertsonaia baten barren-barrenean bilatuko du ondoren bakarrik ametsak sortzeko balio duen materia berezia, lehengaia, eta, metropoli foral honetan gutxitan gertatzen dena, oraingoan behingoz beren ahots propioez hitz egiten entzun ahal diegu ametsaren eta pertsonaiaren bila abiatzen direnei. Oholez egindako ametsak, haragizko ametsak, tx-

Lehengaia

loek putzu beltzetik ateratzen dituztenak.

Alabaina, gainerako guztiei hasiera ematen diena, paper batean sortu zen duela mende asko, Rikardo III.a papezko izaki gaizto bat besterik ez zen aktore talde batek istorioa taularatzea erabaki zuen arte. Orduan kate bat egin zuten eta sormenaren ametsa materia desberdinez osatzen hasi ziren denak historian zehar, komiko zaharrak eta Al Pacino, John Gielgud eta Vanessa Redgrave, Orson Welles eta auzoko antzerki eskolako talderik xumeena, izkinako mimoa eta muntaia bakoitzean milioiak gastatzen dituzten zentro dramatikoko ofizialak. Hori bai, denek zekiten, denek dakite, jatorria paper batzuetan zegoela, dagoela, antzerki obra batean, gidoi batean, idazleak bakardadean sortutako lerroetan, dialogoetan,

egoeretan. Hala izan da elektronikaren tirania ezarri den arte; orain jende gehienak hodi katodikoetan bilatzen ditu ametsen materia eta egia, ume batek baino gehiagok hautsi du telebista bere esku txikiakin errealitatea eta magia batera harrapa zitzaitekeelakoan eta koloretako kable batzuk baino ez ditu aurkitu. Bukatu berri den Liburu Azokan Gaztelu plaza monitore txikiz beterik irudikatu nuen eta eszena futurista ez zitzaidan batere gustatu, ez telebistak, bideoak eta elektronika gorrotatzen dituzdalako, ez, baizik eta bertan ametsak sortzeko materiari ez litzatekeelako izanen. Blade Runner ere paperezkoa eta zeluloidezkoa izan zen 625 lerroetara pasa aurretik, eta hori oso ongi daki New Yorkeko kaleetan noizean behin baloia saski batean sartzen saiatzen den Al Pacino jaunak. X

* **GURE AUKERAK**

KONTZERTUAK

Iruñea: Rosanak kontzertua eskainiko du igandean zezenplazan, gaueko 9:00etatik aurrera. Sarrerak 2.000 pezeta balio du.

Castejon: Rock jaialdia eginen dute bihar zezenplazan, Flitter, Koma, Desafio eta Síndrome del Norte taldeen eskutik. Gaueko 9:00etan hasiko da.

Elizondo: Casino tabernan kontzertua eskainiko du Wichitta taldeak igandean, arratsaldeko 8:00etatik aurrera.

Etxauri: Laukote taldea Txoko Txiki tabernan izanen da gaur, gaueko 11:00etatik aurrera.

ANTZERKIA

Zizur Txikia: Teatro Mobil taldeak *Mobil Express* lana antzertuko du gaur herriko pilotalekuan, arratsaldeko 8:00etatik aurrera. Obra bera Erronkarin taularatu du talde horrek bihamurruan, pilotalekuan eta arratsaldeko 8:00etan.

Zizur Nagusia: Shambu taldeak *El secreto de Elena* taularatu du gaur Kultur Etxean, gaueko 10:00etan.

Iruñea: Nafarroako Antzerki Eskolako taldeak *El humor de Karl Valentin* antzertuko du gaur, bihar eta etzi eskolako aretoan bertan, gaueko 9:30etan.

ERAKUSKETAK

Iruñea: Feli Pattierren lanak ikusgai dira Jai Alai erretegiaren, uztailaren 3ra bitartean.

ZINEMA

Zudaire: Udaberriko Biraren barruan, *Space Jam* filmea eskainiko dute plazan bihar, gaueko 9:30etatik aurrera.

LEHIAKETAK

Iruñea: Nafarroako Antzerki Eskolako Umeentzako Antzerki Testuen VI. Lehiaketa antolatuko du. Hemezortzi urtetik gorakoek parte har dezakete. Egile bakoitzak argitaratu gabeko hiru testu aurkeztu ahal izanen ditu gehienez, gaztelaniaz edo euskaraz. Parte hartu nahi duenak Nafarroako Antzerki Eskolara (Iruñeko San Agustín, 5) bidali behar ditu lanak, abuztuaren lehena baino lehen.

IBILALDIAK

Iruñea: Arturo Kanpion euskaltegiaren 25. urteurrenaren ospakizunen barruan, Iruñeko mugetan barrera ibilaldia egiten dute euskaltegiko kideek eta parte hartu nahi duten guztiak.

Iruñea: Ibilaldia antolatuko du Oberena Mendi Taldeak iganderako. Goñitrekuraino igo eta handik Berriain mendian zehar San Donatora abiatuko dira partaideak; gero Unanuara jaitsiko dira. Goizeko 8:30etan aterako dira Oberenatik.

nafar kronika

Patxi Larrion

Zarra-zarra

Uriak egunean eguneko aldarrikatu zuen. Urliak aldiz, lehenbiziko itzulian zenbait taldek erdietsitakoa ikusirik, nolabait muga igaro izana iragarri zigun. Sandia, ohi den bezala, kexu azaldu zen. Hauteskudeen —ez naiz Mendillorri ari—, bigarren bozkaren ondorengo gogoetak. Ipar Euskal Herritik landa, sistema ulertu ez duenik egon bada, arreta jarri duena sigla berri batzuen jabe bihurtu zaigu.

Mugaz bestaldean, osatu berria da batzordea, aholku-emailea eta barnean ere badauka nori

eman aholku. Baikor nauzue, batzordearen balizko eraginkortasuna uste baino handiagoa baita, horra hor, hezkuntza aferetan murgildu nahia: batzuen jokabidea azaleratu baitu.

Ordenantzak hiriburuzagian. Kritikagai diren arauak, duda izpirik gabe, baina, hori bezain beste, erabiltzeko tresnak. Bat baino gehiagok posibilitatearen urrina somatuko du ene hitzetan, orriotan maiz erabili den argudioa. Honako hau akabera duzue. Ostiral honetan, Javierrek Jorgeri, hamaikagarrez errepikatuko dio: «Gu, badakizu, zarra-zarra».



asteko pertsonaiak



Txomin Nagore
Futbol jokalaria

■ Txomin Nagore eta Mari Lacruz Osasunako jokalarien etorkizunari buruz gauza asko erran da azken asteetan. Biak Athleticeko jokari bihurtzeko aukerak tirabira ugari sortu du bilbotar eta nafarren artean. Bilbon haserre dira Osasunarekin, emandako hitza bete ez duelako. Maiatzaren hasieran ahozko akordioa lortu zuten Irigarai eta Arratek Nagore eta Lacruz saltzeko, eta Osasunak baimena eman zien jokalariei Athleticekin sinatzeko, eta hala egin zuten maiatzaren 13an. Irigaraik, ordea, taldearen egoera aldatu ondoren, atzera egin du. Jokalarien salmentarekin ados badago ere, datorren denboraldian Osasunak jokatzeko eskatu du Enrique Martín Monreal gorritxoaren entrenatzaileak.



Jose Maria Satrustegi
Euskaltzain eta idazlea

■ Jose Maria Satrustegi euskaltzain eta idazle arruazuarra *Mattin Mottela* ipuin bilduma aurkeztu zuen atzo Iruñeko hotel batean. Burundesa enpresaren eskutik plazaratu du Satrustegik azken lan hau, Alsa taldeak bere bezeroen artean banatzen dituen ipuin bildumen barruan. Ez da salgai izanen, beraz, *Mattin Mottela* liburua erdaraz eta euskaraz idatzi du Arruazuko ikertzaileak, eta Sakanako ahozko tradizioetik idazleak berak berreskuratutako ipuin folklorikoak biltzen ditu. Satrustegi sorterrira itzuli zen ia, 40 urtez Luzaiden eta Urdiainen apaiz izan ondoren. Urte hasierarekin batera ere Euskaltzaindiko Nafarroako ordezkariaren ardura utzi zuen bazter.

ahaztu gabe!



LEHIAKETAK

Zangoza: Udalak, urtero legez, herritarrentzat bi lehiaketa ezberdin antolatu ditu berriki: jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa, alde batetik, eta Zangozako Hiria literatur saria bestetik. Lehenengoan herritar guztiak izanen dute parte hartzeko aukera, eta bigarrenean, berriz, Zangozako ikastetxeetako Lehenengo Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetako neska-mutilek. Lanak aurkezteko epea hilaren 30ean amaituko da bietan, eta irabazleek izanen dituzte uztailaren 15ean emanen dituzte ezagutzera. Kartel lehiaketari dagokionez, Kultur Etxera bidali behar dira lanak (Mediavilla kalea, 20). Gehienez 70x48 zentimetrokoak izan daitezke kartelak, eta *Fiestas de Sanguesa-Zangozako Jaiak* leloa agertu beharko dute. Udaleko Kultur eta Jai Batzordeak aukeratu dituen epaimahaiko kideak, eta horiek 75.000 pezetako sari bakarra banatuko dute parte-hartzaileen artean. Literatur sariari dagokionez, Zangozako neska-mutilek parte har dezakete, eta gehienez hiru orrialdeko lanak aurkeztu ahal izanen dituzte. Epaimahaia bi sari banatuko ditu haurron artean: 20.000 pezetako eskola material bilduma lehenengoari, eta 15.000 pezetakoa bigarrenari.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haurrentzako saioa 12.30etan.

Altsasu

Antzinako merkatua herrira iritsi da

Nafarroako Artisau Elikagaien Elkartek antolatuta, bihar eta etzi egingen dute azoka

Aurreko urteetan legez, Nafarroako Artisau Elikagaien Elkartek Antzinako Merkatuak antolatu ditu aurten ere. Joan den asteburuan jarri ziren abian Tuteran, eta bihar eta etzi, Altsasun egingen dute azoka. Ondotik, Nafarroako beste herritan izanen dira Erdi Aroko giroa gogoratzen duten merkatu bitxi eta ikusgarriak.

Erredakzioa / Iruñea

URTERO legez, eta Nafarroako Artisau Elikagaien Elkartek antolatuta, Antzinako Merkatuak iritsi dira ekainarekin batera gure herrialdeko hainbat herritarra. Joan den asteburuan Tuterako karriketan jarri zuten, eta bihar eta etzi, Altsasun. Baina beste herri batzuk ere jasoko dute Erdi Aroko merkatu bitxi bisita laster, hala nola Lizarrak (uztailaren 19 eta 20an), Erronkarik (abuztuaren 9 eta 10ean), Erriberrik (abuztuaren 23 eta 24an) eta Corellak (irailaren 20 eta 21ean).

Asteburuan Altsasun egingen dutenari dagokionez, eguerdian hasiko da bihar, eta igande gaueko 10ak arte izanen da zabalik. Erdi Aroko juglaeren kalejirak emanen dio hasiera, eta, ondoren, pregoia irakurri ondoren, ofizialki irekiztat emanen dute merkatua. Kalejiraren bidez merkatuari hasiera eman ezetik, beste hainbat ekitalditan parte hartuko dute juglaereek merkatuko txokoetan barrena: malabareak egingen dituzte, ipuin kontalari izanen dira, trobadore, eta abar eta abar. Larunbatean, gai-



Juglaeren emanaldia, joan den asteburuan Tuteran egindako merkatuan.

JOXE LACALLE

nera, ilunabarrean, suaren inguruan Erdi Aroko mito eta kondairen berri emanen diete Altsasuko lagun eta bisitariak.

Denetara, 40tik gora artisauk parte hartuko du Altsasuko antzinako merkatuan. Hainbat ardatz izanen ditu azokak. Alde batetik, elikagaiak saltzeko zortzi postu izanen dira, Nafarroako Artisau Elikagaien Elkarteko kideak, alegia. Besteak beste, Erronkari eta Idiazabal gazta, ahate produktuak, sagardoa, ez-tia eta pastak izanen dira salgai. Bestetik, mota askotako artisauk euren lana erakusteko

aukera izanen dute, Altsasukoak bertakoak, Nafarroakoak, oro har, eta baita Euskal Herri osokoak eta hemendik kanpokoak ere.

Kaleko giroa ere ardatz garrantzitsua izanen da merkatuan, eta Erdi Aroko merkatuen giroa Altsasura ekartzeko juglaereek egingen dute lan, erran bezala. Karriken apaintetarako ere lagunduko du behar bezalako giroa lortzen. Postu guztietako arduradunek, adibidez, Erdi Aroko jantziak eramanez dituzte soinean, eta erosleek, halaber, garai hartako florin, sueldo eta carlin-ekin or-

dainduko dituzte euren erosketak.

Aurtengo merkatuen bidez, beraz, orain hiru urte hasitako bitetik jarraitu nahi du Nafarroako Artisau Elikagaien Elkartek. Gaur egun arte, hain zuzen, hamazazpi merkatu egin dituzte elkarteko kideek Nafarroako hainbat herritan. Antzinako Merkatuen xedea, betiere, landa turismoaz gozatzeraz gure herrialdera etorritako turistek eskaintza berezia ematea da, eta, aldi berean, artisau eta produktoreen eta erosleen arteko harreman zuzena bultzatzea. X

Lizarra

Kultur afariak egingen dituzte bihartik aurrera

■ Bailarako Partzuergo Turistikoak antolatu ditu

Erredakzioa / Iruñea

LIZARRALDEKO Partzuergo Turistikoak antolatuta, Lizarrako Afariak izeneko programa abian jarriko da bihar. Denetara bost afari egingen dituzte Santo Domingoko komentuan, Nafarroako Gastronomi Ikasketen Elkarteko kideen aholkularitza eta Nafarroako Gobernuaren babesarekin. Iaz hasi zen programa hori eta 780 lagunek hartu zuten parte. Aurten, kopuru hori gainditzea espero dute antolatzaileek.

Bihar egingen dute Lizarran lehen afaria, erran bezala, eta hurrengoak hilaren 28an, uztailearen 19an, eta abuztuaren 23 eta 30ean izanen dira. Santo

Domingoko komentuan izanen dira denak, gaueko bederatzia eta erdietan. Bakoitzean gehienez 165 lagunek hartu ahal izanen dute parte, eta afariak 5.500 pezeta balio du.

Lizarraldean izan diren gastronomi kultur ezberdinak ezagutzera ematea da Lizarrako Afariak programako antolatzaileen helburua. Biharko afariak, hain zuzen, Donejakue bidea omenduko du, eta menua hauze izanen da: muskuilu zopa, amurruin kazola, kapoia mahats gordinekin eta sagar mirraustea. Afalostean, Reservata taldeak kontzertua eskainiko du. Gai-nontzeko afariak Ilargi, Ereintza abesbatza eta Dulantz taldeek girotuko dituzte. X

Zubiri

Esteribarko Eguna bihar eta etzi ospatuko dute

■ Ekitaldien artean, herri bazkaria egingen dute

Erredakzioa / Iruñea

ESTERIBARKO EGUNA ospatuko dute bihar eta etzi Zubirin. Larunbateko ekitaldiak arratsaldeko 4:30etan hasiko dira, pilota partiduekin. Jaietan pilotalekuan izanen dira. Ondoren, 6etan, *Marrubizko printzesa* haurrentzako antzerki obra eskainiko du Gau Txorin Gus Marionetas taldeak. Arratsaldeko 7etan, halaber, Esteribarko ludoteka inauguratuko dute. Merendua izanen da bailarako txiki-entzatzat. Azkenik, gauerditik goizaldeko 4ak arte, gaupasa izanen da Basajaun taldearekin plaza Nagusian.

Igandean, bestalde, goizeko 9etan dianak joko dituzte gai-

tariek, eta ordu bete beranduago, bizikleta martxa egingen dute bailaran zehar. Eguetik atera eta Zubirin amaituko da. Goizeko 11etan, berriz, meza izanen da, eta ordu horretatik arratsaldeko 2ak arte, eskularen erakusketa.

Eguerdian, Eugi eta Zubiriko dantzariak emanaldia eskainiko dute, eta 12:30etan, bailarako gazta eta txorizoak izanen dira dastagai. Ondoren herri kirolak izanen dira, eta 2:30etan, herri bazkaria Jarautan 69 taldeak alaituta. 5:30etan, kalejira izanen da eta Trikimaku taldearen emanaldia. Arratsaldeko 7:30etan, berriz, dantza erakustaldia egingen dute, eta 8etatik gauerdia arte, Trikimailu taldearen eskutik dantzaldia. X

Zizur Nagusia

Kultur Zikloa astelehenean hasi eta hilaren 23an amaituko da

■ Kultur Patronatuak antolatu du, urtero legez

Erredakzioa / Iruñea

ZIZUR NAGUSIKO Kultur Patronatuak antolatuta, Kultur Zikloa ospatuko dute Zizurren datorren astelehenean, hilaren 23ra bitartean. Astelehenean, hain zuzen, hilaren 16an, Oskorri taldearen *The pub ibiltaria* ikuskizunak emanen die hasiera datozen egunetako ekitaldiei. Arratsaldeko 8etan hasiko da, pilotalekuan. Sarrera dohanik izanen da.

Hilaren 19an, *Euskararen egoera Nafarroako komunikabideetan* izenburuko hitzaldia eskainiko dute Euskalerrria Irratiko kide Kike Diez de Ultzurrunek eta Reyes Ilintzetak. Igerilekuetako egoitzan izanen da, arratsaldeko 8etatik aurrera. Biharamunean musikak hartuko du berriro lekukoa Xaxiano abeslariaren eskutik. Arratsaldeko 7:30etan kontzertua eskainiko du Erreniega parkean.

Egun berean, hilaren 20an, herri afaria egingen dute bertsoariak lagunduta, gaueko 9:30etan igerilekuetako egoitzan. Ondoren, Joseba eta Ander trikitalarien eskutik dantzaldia izanen da. Hilaren 21ean, halaber, Shambu antzerki taldeak *Gure lurreko kondairak* taularatuko du Erreniega parkean, eguerdian.

Hilaren 23an, azkenik, gaueko 10etan, zarpantzarrekin kalejira egingen dute San Joan suen inguruan. Txistulari eta gaitariak ere parte hartuko dute. X

Irurita

Garagardoaren Besta ospatuko dute bihar laugarren aldiz

Erredakzioa / Iruñea

IRURITAKO Garagardo Besta laugarren aldiz ospatuko dute bihar. Aurreko urteetan bezala, mota guztietako garagardoak dastatzeko aukera izanen da, bai eta hainbat musika talderen emanaldia entzuteko ere. Han izanen dira Komando Moriles eta Aspild kataluniarrak, M-Clan murtziarrak eta Sustriak, Etsaiak, Tapia ta Leturia Band, King Mafrundi eta Discipulos de Dionisio euskal herritarak. Garagardoaren bestak arratsaldeko 6etan zabalduko dituzte, eta hamabi orduz egonen da irekita. Bestaren helburua Iruritako gazteak bildu eta haientzat etxe bat lortzea da. X

Tafallako eta Altsasuko
ikastolen liburuak kalean

Altsasu eta Tafalla, oroitzen diren astinduz

Beste ikastola batzuek bezala, 25 urtetako historia jasotzen duen liburu bana plazaratu dute

Edurne Elizondo / Altsasu-Iruñea

IKASTOLEN historia bakarra omen da, historia bera guztientzat. Bakoitza, ordea, berezia da bizi dutenentzat, historia bakarra da berau egin dutenentzat. Altsasuko ikastolarena 1971. urteko irailean hasi zen. Orduan hasi zen lehenengo ikasturtea Iñigo Aritzan, aurretik hasitako guraso eta euskaltzaleen lanari esker. «Jose Maria Satrustegirekin bildu ziren ikastola sortzeko asmoz, haurrak euskaraz hezitzeko gogoak bultzatuta», gogoratu du ikastolako zuzendari Esther Garaialde ordiziarrak.

Garaialde orain hamar urte ailegatu zen Iñigo Aritzara. Aurretik, zazpi urte eman zituen Olaztikoko ikastolan irakasle. Altsasuko ikastolako lehen urratsak bizi ez bazituen ere ongi ezagutzen ditu, hamaika aldiz entzun baitu irakasle eta gurasoen ahotik lehenengo urteetako arazo eta oztopen berri. «Etxabe batean jaio zen ikastola, eta gurasoak proiektu berria martxan jartzeko gogoz baziren ere, kezkatuta zeuden. Finean, baldintzak oso txarrak ziren».

Ikastolaren inguruko mugimendua, ordea, handituz joan zen poliki-poliki, eta gurasoak laster konturatu ziren proiektuak zabalagoa izan behar zuela. Etxarri-Aranazko beste gurasoekin bildu eta inguru osorako ikastola egin beharra zegoela erabaki zuten. Asko eztabaidatu ondoren, ikastola Altsasun jartzea erabaki zuten denen artean, han euskarak indartzeko premia handiagoa zuela uste zutelako. Etxarrik ikastola propioa sortuko zuen gero. Eta 1979. urtean Iñigo Aritza ikastolaren egungo eraikina inauguratu zuten, zuhaitz artean.

Han egiten du lan oraindik Mikele Aierdi ataundarrak, Iñigo Aritza ikastolako lehen andereñoak, baina gogoan ditu San Juan kaleko etxabearen egindako lehen urratsak: «Bi, hiru eta lau urteko 39 haurrekin hasi nintzen, bakarrik. Beste garai bat zen, eta lana ere ez zen gaurkoa bezalakoa. Orduan ez genuen deus eta liburuak guk erosi behar izaten genituen askotan. Baina denak elkarrekin ginen, gaur egun ez bezala harreman handia genuen andereñoek gure artean. Han ziren Lizarrako andereñoa, Tafallakoa, Etxarrikoa...».

Gurasoek eskatuta iritsi zen Mikele Aierdi Altsasura Olaztitik. Olaztin, hain zuzen, Milagros Lopez de Goikoetxearekin batera etxe etxe ibili zen Aierdi ikastola sortzeko sinadurak biltzen. «Nire lagun batek haurrei euskaraz irakatsi nahi zela esan zidan, eta ea prest nengoen lan hori nire gain hartzeko. Gehiegi pentsatu gabe baietz esan nuen, eta gaur arte, Jose Maria Satrustegirekin bildu ginen, Iruñetik ere Jorge

A ltsasuko Iñigo Aritza ikastolak azken 25 urteetako historia jasotzen duen liburu aurkeztu zuen jendaurrean joan den ostiralean, orain aste batzuk Tafallako Garces de los Fayos ikastolak egin bezala. Ez dira bakarrak, dena den, aurretik gauza bera egin baitzuten Iruñeko San Fermin ikastolak, Lizarrakoak, Etxarrikoak eta Elizondokoak 25. urteburua betetzean. Berakoa ere bere liburu prestatzen hasi da, hemendik bi urtera baitu 25. urtemuga. Liburu eskuetan hartuta, hango ikastolen historiaren berri eman digute Altsasun eta Tafallan.



Altsasuko ikastolako neska-mutilak 1973. urteko Nafarroako Ikastolen Egunean.



1969. urtean sortu Olazti ikastolako hainbat kide.

Cortes Izal etorri zen, eta horrela sortu zen Olaztikoko ikastola. 1969. urtean jaio zen Olaztikoko ikastola eta egun oraindik martxan da. Sei urterekin, Altsasuko ikastolara pasatzen dira hango ikasleak.

Bi, hiru eta lau urteko neska-mutilekin hasi zen lanean Mikele Aierdi, eta gaur egun bi urtekoen ardura du bere gain, horiek baititu gogokoen. «Urtero etortzen direlako berriak». Urte hauetan guztietan, neska-mutil askotxo

igaro da Mikele Aierdiren ikasgelatik, baina haietako askoren hainbat esaldi eta bitxikeria gogoan ditu oraindik. Bada bat behin eta berriz kontatu duena, sekula ahaztuko ez duena: «Sendiari buruz hitz egin genuen ikastolan, eta neskato batek etxera joan eta amonari oihu egin omen zion erdaraz: *Abuela! Que ya no eres abuela, que ahora eres mona, y el abuelo otro mono!*», gogoratu du andereño ataundarrak.

Mikele Aierdiren hasierako 39 ikasleak 350 dira gaur egun, eta Altsasutik ezezik, Olazti, Urdjain eta Zjorditik joaten dira neska-mutilak Iñigo Aritza ikastolara. 25 urtetan zehar oztopo anitz gairatu behar izan badute ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) eskaini ahal izateko borroka izan da ikastolako kideen azkena. LOGSEk (Espainiako Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legea) eskatutako baldintzeara egokitzeko egin beharreko ahalegin ekonomikoari aurre egiteko, 1993. urteko Nafarroa Oinez antolatutako Iñigo Aritzak, 1981. urteko ekainaren 21ean lehen aldiz egin bezala (hura izan zen lehenengo Nafarroa Oinez), ikastolen aldeko besta horri es-

ker, ikastola handitu, moldatu eta egokitu ahal izan dute: bost gela berri, teknologia tailerra, jantokia... Halaber, Nafarroako Gobernuaren eskutik jaso beharreko DBH eskaini ahal izateko baimena ere eskuan dute (bai eta Etxarriko ikastolak ere) ikasturtearen hasieratik.

Horrekin guztiarekin pozik da Esther Garaialde, Iñigo Aritza ikastolako zuzendaria, 25. urteurrena ospatzeak esku artean proiektu heldu eta sendoa dutela esan nahi duela uste baitu. Mende laurdena igaro ondoren, hala ere, malenkoniak harrapatzen du gutxien uste duenean: «Gure ikasle izandakoen seme-alabak ikasle ditugu jada!».

Ikasle ohiek ikastolarekin duten harremanari eusten diotela ikusteak, halaber, biziki pozten du ordiziarrak, nahiz eta hasierako eta egungo egoera oso ezberdinak direla onartu: «Arazoak daudenean jendea segituan hurbiltzen da guregana, eta hori eskertzekoa da, baina uste dut eguneroko harremana, hasierako freskotasuna galdu dugula neurri batean». Garaialdek, hain zuzen, hasieratik ikasleekin izan duen harremana ez du bazter utzi nahi, eta, nahiz eta zuzendari lana egin, urtero hartzen du

Regino Aiesa: «Orduko gurasoen gogoa sendoa zen, argi eta garbi ikusi zuten ikastola sortzeko beharra»

Tafallako eta Altsasuko
ikastolen liburuak kalean

Esther Garaialde:

«Arazoak daudenean jendea segituan hurbiltzen da baina hasierako freskotasuna galdu dugu»

asteko hainbat ordu eskolak emateko.

San Severinotik eskolen egoitzara • Tafallako ikastolaren historia Altsasukoa baino urtebete lehenago hasi zen, 1970. urtean jarri baitzen abian lehen ikasturtea, zortzi ikaslerekin. Baldintzak, leku guztietan bezala, ez ziren onak, eta premiak eta oztopoak, berriz, asko. Regino Aiesa Tafallako Garces de los Fayos ikastolako zuzendariak azpimarratu duenez, hala ere, «orduko gurasoen asmoa sendoa zen, eta argi eta garbi ikusi zuten ikastola sortzeko zegoen beharra». Gurasoek, gainera, Tafallako euskaltzale guztiak izan zituzten lagun asmo hura egia bihurtzeko.

Lehen ikasturteko zortzi ikasle haien lehen egoitza, zaharren egoitza izandako San Severino etxea izan zen Tafallan, eta Pikondo izenekoa hurrengoa. Herrian hutsik gelditu ziren eskolen egoitzara joatea izan zen ondorengo urrats nagusia, hori baita oraindik Garces de los Fayos ikastolaren egoitza. 1979-80 ikasturtean, lehendabizi, eskolen egoitza zaharrean gela bat lortu zuten Tafallako ikastolak, eta 80-81 ikasturtean, azkenik, egoitza osoa. 1986. urtera arte, gurasoek egindako konponketek esker aurrera egin zuten etxe berrian. Eta urte horretan, Nafarroa Oinez egin zuten Tafallan, beste bultzada bat emateko eta egun hartan lortutako diruari esker inbertsio berriak eginez ikastolako ekipamendua hobetzeko.

«Horren ondotik, hainbat urtez lasai egonen ginela uste genuen —Oinarrizko Hezkuntza Orokorrerako legezapena lortu zuten ikastolak— baina 1990. urtean LOGSErekin batera, erroka berria agertu zen gure aurrean», azaldu digu Regino Aiesa zuzendariak. Abenduan Nafarroako Gobernuak onartu dekretu foralaren bidez, hain zuzen, behin-behineko baimena du oraingoz Tafallako ikastolak DBH eskaini ahal izateko. Behin-betiko baimena lortu ahal izateko legeak eskatutako baldintzetara egokitu beharko dute ikastola hango kideek, eta hori egin ahal izateko, aurtengo Nafarroa Oinez Tafallan ospatuko da, jakina denez.

Urriaren 19ko besta prestatzen buru-belarri ari dira lanean Tafallako ikastolako kideak. Eta, Regino Aiesak azpimarratu duenez, helburu bikoitza lortu nahi dute Nafarroa Oinezekin: dirua alde batetik, ikastola handitu ahal izateko, eta bestetik euskarari beste bultzaldi bat eman Tafallan. Ikastolako zuzendariak, are gehiago, urriko bestaren lehen helburua herritarrei euskara Tafallan dagoela gogoraraztea dela nabarmendu du. «Xinai-



Tafallako ikastolako andereño bat ikasleekin, orain dela zenbait urte.

rrien lana egiten dugula dirudi, baina emaitzak hor daude, eta hori esan behar da», aipatu du. Ildo horretan, Txalaparta argitaletxearen eskutik Jose Maria Jimeno Jurioren *Nafarroa. Euskararen historia* liburua plazaratu du Nafarroa Oinezek.

Ez da hori izan, dena den, orain

arte egindako ekitaldi bakarra, Regino Aiesak azpimarratu duenez: «Hilero prestatzen dugu zerbaite. Orain arte egindako lanarekin pozik dira, gainera, eta urriaren 19an dena prest izanen dela ziur dira.

Urriko besta egiteko prestaketekin kontent badira, are gehiago

orain bi urte bete zuten mende laurdenarekin. Horren erakusgarri da berriki urte horietako historia jasotzeko argitaratu liburua. 27 urte bete dituen honetan, Regino Aiesak Tafallako ikastola ikastola errotu eta sendoa dela azpimarratu du, «XXI. menderako prestatua».

Jesus Atxa: «Sinestezina da egun duguna»

■ Nafarroako ikastolen sorrerari buruz mintzatu zaigu Atxa

Edurne Elizondo / Iruñea

TAFALLAKO eta Altsasuko ikastolek 25. urtemuga dela eta berriki argitaratu dituzten liburuek Jesus Atxaren oroimena dute informazio iturri, eta haren idazlumatik sortuak dira bi ikastola horien historia jasotzen duten lerro gehienak. Izan ere, Nafarroako ikastolen sorrera eta garapenaren historia oso ezaguna du Jesus Atxak, ia 40 urte baitarama ikastolen alde eta ikastoletan lanean. Hamabost urtez, hain zuzen, San Fermin ikastolako zuzendari izan da Jesus Atxa aretxabaletarra.

Nafarroako Ikastolen Elkarte San Anton kaleko egoitzan aurkitu dugu Jesus Atxa, ikastolei buruz bildu duen material guztia biltzen duten apalategien ondoan eserita. Eta ez dira gutxi, aitortu digunez, ikastolen inguruan bildutako guztiarekin artxiboa osatzea baita bere helburua, nahi duenak kontsulta dezan. Hain ezaguna duen Nafarroako ikastolen historiari buruz mintzatu zaigu Atxa.

«Lehenengo ikastolak gerra aurretik sortu ziren, baina Nafarroan ere, 1931tik 36ra hiru egon ziren, Iruñean bat, Elizondon bestea eta Lizarran hirugarrena». Gerra ondoren fruitu horiek guztiak desagertu ziren, ez ordea hazia. 1963koa da Nafarroan ikastolak sortzeko hurrengo

saioa. Zabaldu zuten egun berean, ordea, itxi zuten Irantzuko ikastola. 1965. urtean, Uxue ikastola sortu zen.

Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak sortu zuen Uxue ikastola, bazkideen seme-alabentzat, Pozoblanco kalean. Gaur Euskal Herria Irratiko Larreko saria jasoko duen Jorge Cortes Izalek hartu zuen haren ardura. Urtetik urtera gora egin zuen ikasle kopuruak eta beste hainbat lekutan zabaldu behar izan zituzten ikasgelak: San Jose plazan, Baiona etorbidean, edo egun EGUNKARIA den Irrintzi dorrean bertan. «Izenetik hasita, euskal kutsu handia izan du beti eraikin horrek», aipatu du Atxak, irribarretsu.

Uxue ikastolako barne istiluek, dena den, bitan zatitu zuten hasierako proiektua, eta horrela, San Fermin ikastola sortu zen batetik, eta Paz de Ziganda bestetik, 1970. urtean. Orduko giroak besterik ere eman zuten, urte berekoak baitira Tafallako, Etxarriko, Lizarrako eta Elizondoko ikastolak, hurrengo urtean sortua Altsasukoa, eta 1974an Berakoa, Lesakakoa, Urdaingoa eta Arbizukoa. Nafarroako ikastolen hastapenetan, dena den, horiek ez ziren bakarrak izan. Atxak azpimarratu duenez, «baze goen lehendik ikastola Larra-soañan, eta Olaguen eta Eugin ere egon ziren, nahiz eta gero

denak desagertu». Hasierako ikastolekin lotuta, Iruñeko lehenengo andereñoen izenak gogoan ditu Aretxabaletakoak: «Tolosako Itziar Orbea izan zen lehenengo, 1963an. Ondoren, Gorritiko Mikela Gastesi eta Izaskun Gastesi haren iloba hasi ziren Uxue ikastolan. Feli Aleman izan zen hirugarrena, Irrintzi dorrean».

Hasierako uneak, bizipenak eta izenak gogoratzean, hainbeste urte igaró izana, hasierako ametsak egia bihurtu izana eta orain dagoena ikustea «sinestezina» iruditzen zaiola aitortu digu Jesus Atxak. Urte horietan guztietan, dena den, gauzak asko aldatu direla azpimarratu du, eta instituzionalizatzeak moteltasuna ekarri diola ikastolari. Hala eta guztiz ere, kontent da lortutakoarekin, eta Nafarroako ikastolen historiari so eginez, hainbat gauza nabarmendu ditu: «Beste herrialdeetan ez bezala, Principe de Vianaren laguntza sortu ziren Nafarroan ikastolak. Hala ere, ikastola guztien historia bera dela uste dut: denek izan dituzte arazo eta oztopo berak. Herriak bultzatuta sortu ziren, gainera. Gaur egun, ikastola bakoitza ahal izan duen lekuan kokatu da, baina alde batekoak zein beste-koak, publikoak eta pribatuak, herren dira, ez bat ez bestea ez baitira egon beharko luketen lekuan». X

mintzoak

Xamar

Idazlea

Oroz gain,
Sorogain

■ Duela urte gutxi zemeit Aezkoako Juntan presidente zena deitu zuten Diputaziora. Bertan, misterio handiz, errepidetan arduradun batek, mapak mahai gainean zituelarik, esplikatuz zuten *plan berria*. Funtsen oreiko berean aipatzen dutena: muga igarotzeko karretera berria.

Delakoa, Agoitz iraganez Orbaizetari buruz, Irati ohianaren barna, eta Irabia urtegiaren ondotik segituz Baxe Nafarroan sartzen zen.

Teknikoak gauren presidentearen ideiak ezonduz, argiki erraten omen zakon: «Segur niz akort izanen girela. Dei zazu zuk Iparralde, nik Frantzia, baia helburuan ados izain gira duikabe... Pentsa zazu Donostia-Jaka ardatza egin behar dugu giputzak ahalik eta lasterren ditezela fan eskiatzera... eta hortatik autobide bat Orbaizetara Frantzia sartzeko... naski, horren truk nahi adina diru Aezkoako garapenerako...».

Gauren adixkideak ezin sinetsi zuen aditu eta planoetan ikusi zuena, Irati ohianaren gaindi autopista, nahi adina diru truk!

Erran gabe dae hortan gelditu zela afera, ez zuten argitara eman; halere temati segitu bide dute *teknikoek*.

Lemixi urtegi bat nahi zuten egin bertan (Arizarteko urtegia); erokeria hura atzundurik, autopista bat, noiz eta Iruñetik Baionara joatea —Donostian barna— aixeen eta fiteen egiten den garraian.

Gauza bakarra da frants administrazioa alde behar dutela izan Urepele Baionarekin lotzeko, eta ez dut uste atxematen dutenik; ez antiz zuhurrago direlako... baina zaila delakoz, arrot, nafar zernahi gobernaren maila erditea.

Beharrezkoa balitz ere, halere, hain izanen gaituzte buruz-buru.

Berriz ere. ■

Xanti Begiristain

Nahi eta ezin, hala ere ez egin muzin

■ Egia esan oso nabarmena da gaur egungo gizartean ez dela erraza suertatzen edozein lekutan euskaraz kantatzea eta musika euskalduna entzutea, ezta euskaraz egitea ere.

Hori dela eta, makina bat tokitan sortu dira elkarteak, biltokiak, mendi taldeak, klubak, kirol taldeak, bidaia antolatutako eta abar.

Leku eta ekitaldi horietan guztietan oso normala da, besteak beste, aprobetxatzea euskaraz ere pixka bat lanitzeko, praktikatzeko, erabiltzeko eta beste. Azken batean, jendea saiatzen da, nola edo hala, gure hizkuntza zaharrak izan dezan presentzia gure gizarte nahasi honetan.

Hala, guztiz arrunta eta ohikoa izaten da horrelako egoeretan ikustea, euskaraz deus gutxi dakien jendea, ba, dakien gutxi hori praktikan jarri nahian, eta hainbat eta hainbat otordu, autobus, aterpe, kanpin denda, elkarre, taberna eta abarretan entzun ohi dira honelako hitz eta esaldiak, adibidez: «kaixol», «zer

rretaz gainera garrantzi gutxiagoko gauzak eta kontzeptuak azaltzeko.

Beranduago, ordea, iritsi ohi da hirugarren zatia, hau da, jendeak, ongi janda eta edanda dagoenean, orduan sentitu ohi du kantatzeko beharra, eta hala ba, hasi ohi da abesten euskaraz kantarik ohikoena, errazena, ezagunena eta abar, konparaziora, *Boga Boga, Agur jaunak, Maitek galde egin zautan, Ixil-ixilik dago* eta bat eta beste.

Baina jakina, jende gehienak ez dakizki ongi eta osorik, beraz, handik gutxira bertako partaideak hasten dira abesti horiek tarareatzen. Beranduxeago, erreperitorioa bukatu zaiela iruditzen zaienean, edota dezente aspertu eta nazkatu direla pentsatzen dutenean, une horretan ekiten diote erdaraz kantatzeari, inolako lotsa eta konplexurik gabe.

Gaztelaniaz, noski, arazorik gabe jakin ohi dituzte ia-ia kanta guztiak, osorik eta buruz, paper eta liburuen beharrik gabe. Esan liteke



moduz?», «nora zoaz?», «jatorra da», «on egin!», «ongi pasa», «agur!», «ongi ibili», «gero arte», «ekarri», «tori», «eskerrik asko», «zer nahi duzu?», «ongi izan!» eta beste asko.

Hau adibidetxo bat baino ez da izan. Gainera, horrelako jarduerak, nik esango nuke batez ere gertatzen direla oso edo nahiko erdaldunduta dauden herri eta hirietan.

Dena den, eta jarraitu baino lehen, esan nahi dut guztiz positiboa eta ona iruditzen zaidala jende horrek egiten duen ahalegina euskaraz aritzeko eta hizkuntza hori bera entzunazteko.

Baina tamalez, bigarren zatia berehalaxe iritsi ohi da, alegia, jendea segituan hasten zaizkio bukatzen baliabideak eta ez du jarraitzerik euskaraz. Orduan ekiten dio erdaraz egiteari. Askotan ez da batera arraroa izaten euskaraz eta erdaraz tartekatzea. Jakina, hala-koetan euskaraz gehienetan gutxiago erabiltzen da, modu trakets eta eskasago batean, eta ho-

une horretan abesten dutena ateratzen zaiela benetan bihotz eta arima barne-barnetik.

Tamalgarría da, baina honelakoxea dugu gure errealitatea asko eta askotan: euskaraz hitz egin, kantatu eta bizi nahi, eta ezin ordea.

Dena den, gehiago amorrarazten naute oraindik beste egoera eta jokamolde batzuek; konparaziora, elkarteetan eta, bazkaldu zein afaldu ondoren, balizko euskaltzaleek zuzenean erdal musika, kantak eta dantzak jartzen dituztenean, kaset eta konpaktuetan. Kasu horietan bai ez dagoela aitzakiarik, zeren eta gaur egun euskal musikaren barruan aukera arrot handia baitago erritmo, mota, estilo, tankera eta abarri dagokienez.

Gabezia horiek guztiak nolabait konpontzeko honelako aholkuak bururatzen zaizkit: ez etsitzea eta sarritan abestea orriak eta liburuak erabiliz, askotan entzun zuzenean edo grabaturik, koherentzia handiagoa gure printzipioekin, eta badakigu, *Ezina ekinez egina*. ■

Klasiko bitxi • arrot klasiko

Joxemiel Bidador

Nafar apologisten miresmena: Aurelio Karraskalen bihotzerrea (I)

■ Pozgarri behar zukeen zenbait nafar egile berrik tajutu euskarazko idazkien aurkezpena —Iruñean eta pasa den maiatzaren 5ean—, gohaindurik abisua emateko toki bihurtu zen halabeharrez. Sekularen atertu ez den ekaltz ankerra erasoan dakarkigute harzara, zikozki, zitalki eta zatarki. Euskararena Nafarroan arnasberiturik zetorrenean, gazte eta itxaropentsu, hara non eta euskararen betiko hiltzaleak hipaka ageri diren, negar-zotinka itogarrian, hezurmuinetaraino sarturik duten erremina gora eginez, euskarari dioten herra agerian utzirik. Erdaltzaleen enbata pairatu dugunok gara orain intransigenteak eta intoleranteak, bai eta halek dira orain iraimduak. Bi mingain dituzten bizkarroi hauek euskaraz andeaturik ikustea amesten digute, eta gure hizkuntza aipatu aldikal argi uzten dute haizerik ez dagoen egunerako bakarrik nahi dutela. Alferrik eta berandu dira baina, eta haien zorizagaitzerako badakite, jakinaren ganean dira hots. Harrapa dezatela Telleriko langa honezkerok! Honengatik, Satanen bisaia baino kopetilunago etortzea ulertzeko dezakegu, baita hasia duten azken saio apengarri hau. Espero zitekeena da, ez gaitzen engaina beraz.

Hizkuntz politika makalari gehiegizkoa baldin baderitzote —Michael E. Morrisi gaingiroki jarraikiz—, Arterderetatik, Erreniagatik edota Lotitit beheiti logale nasaiki hedatzen diren alorretan barrena esparragoekin batera euskaldun mintegi nareoi ez derizete askozaz gutxiagoko, izan ere, euskarri darabilten kirtel leloa hauxe baita, Nafarroa osoa ez da euskalduna izan, ez da izaten eta ez da izanen. Horrela agiantzaten dute, eta hortako nafar erberek bihurtu nahi dizkigute haien ideien sos eta txanpon merke. Baina sasi demokrata hauei aisa xamar ahantzten zale beraiek berek baieztatu legea: Erribera izanen da beti Erriberako jendeak nahi duena, eta gaurgero beterrri nafarrean euskaraz nahi dutenak badira, Aurelio Arteta jauna —edo hobeki esanda, Aurelio Carrascal jauna, Mikel Bujandak ber bataiatu bezala—, berorri ezazoi iduri arren, alta funtsgabekoa zer den eta zer ez den erabakitzeko ahalmena ez baitagokio berorri bakarrik, eta orain arte esan arrazoi mutirik mendreak ditugu oso.

Erriberan euskararen galera aspaldiko kontua dateke, baina gure lehendabiziko historiagileen lanetan euskaraz bertakoa ere bazela argi aski zuten gauza da, eta atorran ezin zuten kabitu horrelakorik baieztatzerakoan. Errez deusezta daitezkeen lanak direla esan lezadake norbaitek, baina dagokien garaian ulertu beharreko idazkiak ditugu, eta edonon ere egiten zirenen antzekoak badira, eta gurea ez den adibide bat ematearren, hor ditugu lekuko XVII. mendean González Correasek, Gregorio López Maderak edota Rodríguez Patónek ziotena, hau da, latina zuzen-zuzenean gaztelertatik zetorrela, eta gaztelera Babelgo dorretik Tubalek ekarritakoa zela, penintsulako gainontzeko beste hizkuntza guztiak handik etortzen ez zirenen bezala. Lan apologetikoetatik atera dezakegun jukua arras historikoa ez bada ere, isurtzen duten herriarekiko maitasuna zein tokian tokiko ezaugarri nazionalak atxikimendua nahikoa adierazgarria da.

Tubalen kontua aipatu zuten idazle nafarrak aunitz izan ziren. Baionako apezpikua eta Nafarroako Karlos II. eta Karlos III. erregeen aitorea genuen Eguiko Garziak bere 1389.eko *Crónica general de España* liburuan ohiko usteari atxeki zion: Tubal, Noeren biloba eta Jafeten semea Penintsulara etorri zen Babelgoa gertatu ostean euskaraz berekin ekarri zuela, halaber zenbait hiri fundatu zituen, haien artean Tuterakoa. Iruñeko Garzia Lopez-Orreagak ber gauza jaso zuen bere *Crónicas de los reyes de Navarra* Evreuxen aldeko idazkian, Diego Ramírez-Arellano Abaloz-Piszina lizentziatuak XVI. mendean latinez eta erromantzez ondu nafar eta kantabriar historietan Tudela Tubalek fundatu zuela bazioen jagoitik, eta gisa berean egin zuen Juan Agilonek bere 1562.eko idazkian.

XVII. gizaldian Tuterakoa zen Pedro Agramont Zaldibar notari euskaldunak izkiriatu Nafarroako historian, doian Mintzoa argitaitexak karrikatatu duenean berean, berdin zioen Tuteraz, eta euskararen bitartez hainbat hitzen etimologiak eman zituen bere teoriak frogagarri. Agramonten garaikide eta herikidea zen Pedro Diego Castillo Artiga, San Bernardoren ordenkidea, Tuterako eliz nagusiaren kanonigoa, Malagako elizaren kolegiata, Avilako kanonigo magistrala, Trujilloko gotzaiak, Santa Feko artzapezpikua, eta, azkenik, Badajozeko apezpikua, Alcalako unibertsitatean dotore titulua 1626.ean eskuratu zuenean, Tubalen berri eman zuen bere hitzaldian, eta Tuteraz Tubalek sortu zuela esateaz ezezik, baita Penintsulako lehenbiziko hiria zela zioen argi eta garbi.

Baxenafarreko Nafarroa Garaian zituzen eskubideen alde agertu zen Juan Sada Amezketa Iruñarrak *Historia apologetica y descripción del reino de Navarra y de su mucha antigüedad, nobleza y calidades* izenburuko lana argitaratu zuen Karlos Labaienaren etxean 1628.ean. Lanaren hirugarren zatia Aragoiko aldundiari ez zitzaion sobera laketa, eta liburua galeratzeko erret-agindua lortu zuen. Halaz guztiz, aragoitarrek ukatu ez zutena Iruñekoak euskarari buruz ekarritakoa izan zen, hain zen begibistakoa: «Los hábitos que usan son tantos que se tiene por cierto no se hallará en la Europa, ni en ninguna otra parte de las que se tiene noticia, donde haya tanta diferencia en un mismo reino, y algunos tan peregrinos que denotan bien su grande antigüedad y vejez, y ser como dice el maestro Florian de Ocampo, el que sus primeros progenitores, los Tubalos les introduxeron, en que se han conservado siempre, hablándose en el dos lenguas, que son bascuence y romance, pero más propiamente la cántabra vascongada que es la matriz y primitiva que el patriarca Tubal su fundador trajo, la cual se habla en la mayor parte de este reino, sin mezcla de otra ninguna, donde se ha conservado siempre». ■

Herri kirola: plazatik erakustaretora

Datorren hilean herri kirolaren inguruko erakusketa zabalduko da Leitzako Labetxean


Plazaolako Turismo Partzuergoak herri kirolaren inguruko erakusketa zabalduko du datorren hilean Leitzan. Aurrera Kirol Elkarteak duen egoitzako ganbaran izanen da uda osoan. Horrela, eskualdean aski ezagunak diren herri kirolak bultzatu eta indartu nahi ditu partzuergoak, eta euskal kulturaren garrantzia duen esparru hori ezagutarazi.

Irene Arrizurieta / Iruñea

ARGAZKI zaharrak eta berriak, herri kirolaren berri ematen duten testuak, hura praktikatzeko erabiltzen diren tresnak eta gaiari loturiko diaporama. Hori guztia jarriko dute Leitzako Aurrera Kirol Elkartearen Labetxea etxeko erakusketan, ganbaran. Astearretetik igandera egonen da zabalik eta, guztira, 21 kirol mota erakutsiko ditu bi ataletan banatuak. Batetik, animaliekin egiten diren probekin zerikusia dutenak bilduko dira, hala nola idi demak, ahari talkak, antzara jokoak eta oilar apustuak. Bestetik, gizakien arteko norgehiagokak jasoko dira: aizkora, harrijasotzea, txingak, lasterketak, sega apustuak, sokatira, estropadak, trontza, palanka, harriuzotzea, laiak, orga jokoak eta zaku eramatea. Jakina da Euskal Herriko herri kirolak garai bateko egunero lan arruntaren isla direla. Urteak joan urteak etorri, aurreapenak etxean sartu ahala lana zena festa bilakatu da. Gaur egun zuhaitzak mendietan ebakitzeko motozerra nagusi da, arrantza kairatzeko badira motordun txalupak, harriak jasotzeko garabiak erabiltzen dira; beraz, herri kirolak egiten zirenekin ekintzak ez dira beharrezkoak eta horregatik lehen apustu, proba edo dema zena kirol bihurtu da. Erakusketan izanen diren pilota eta bola jokoak dira lanarekin zerikusirik ez duten joko bakarrenetakoak.

Plazaolako Partzuergoak bultzatutako ekimenak hiru milioi pezetako aurrekontua du (120.000 libera). Idoia Lasarte, Mari Jose Astiz eta Izaskun Ibarra arduratu dira erakustaretoaren kudeaketaz eta lanaz.

Leitzan herri kirolak aritzen diren famatu asko • Plazaola Partzuergoko kudeatzaile Maiteña Ezkutarik azaldu duenez, erakusketa Leitzan egiteko erabakia hartu zen han herri kirolak famatu franko daudelako eta oraindik ere zaletasun handia dagoelako. Leitzarrak dira, beste batzuen artean: Garziarena eta Astibia aizkolariak; Bengoetxea IIIa eta IVa pilotariak, edota Zestau erremonite jokalaria. Aipatu gabe ezin utzi Iñaki Perurena, apustuetatik urrun dauden modu berriak ekarri baititu harrijasotzera. Mikel Saralegi iritsi



Beste batzuen artean, Iñaki Perurenak egindako markak jasoko ditu erakusketak.

ARTXIBOKOA

Museoarena asmo bat besterik ez bada ere, uda bukatutakoan erakusketaren edukiak Partzuergo osatzen duten beste herrietara zabalduko dira.

Plazaolako Partzuergoan biltzen dira Larraun eta Ultzama bailaretako herriak eta Leitzan, Lekunberri eta Betelu; orotara, 32 herri

arte, Perurena izan zen lehena 300 kiloko harria jasotzen, eta haren ospeak guztiz gainditu du herri kirola.

Dena den, herri kirolak ezagutzeko aukera ez da erakusketara mugatuko. Eztutarik dioenez, erakusketa osatuko duten aktibitateak egiten dira umee-

kin. Oraindik zehaztu gabe badago ere, herri kirolak era didaktikoago batean erakusteko tailerrak antolatu nahi dituzte irailerako. Herri kirolak erakusketak bakarrik motz gelditzen dela uste dugu. Hori dela eta, irailean, ikasturte hasierarekin batera, herri kirolaren ezaugarriak eta

horretan aritzeko dauden moduak eta teknikak azalduko dituzten tailerrak egiteko asmoa dago Leitzako zein Partzuergo osatzen duten beste herrietako haurrekin. Tailerrak Leitzako plazan egiten literateke eta irakasleak horretan ari diren kirolariak izatea nahi lukete.

Museo egonkorra egiteko aukera zaila da • Hasiera batean Labetxeko ganbara herri kirolaren museo bilakatuko zen zurtumurrua zabaldu bazen ere, orain ez dago horretarako asmorik. Partzuergoko kudeatzailearen arabera, erakusketa zabalduko aukera hoberena museo bat izatea bada ere, aukera hori oso zaila da. «Ez Leitzako Udalak

Kirolariak, laguntzeko prest

GARAI BATEAN ezezik, egun ere herri kirolean aritzen diren kirolari ezagunak baditu Leitzak. Erakusketan, beste batzuen artean, Mikel Saralegi eta Iñaki Perurena harrijasotzaileen lana aipatuko da. Plazaolako Partzuergoak bultzatu duen egitasmoa oso ona iruditzen zaie eta laguntzeko prest daudela azpimarratu dute.

Iñaki Perurenak, bazterragotik bada ere, harriari lotua jarraitzen du. Asteburu askotan harrijasotze erakustaldiak egiten ditu hamahiru urteko semearekin non-nahi. «Herri kirola Euskal Herrian daukagun zerbait da. Nik beti esan dut herri kirola, kirolaz gain, gure bizitzaren parte eta herriko kultura ere badela. Jendeak Leitzan herri kirolarekin uztartzen du, horretan aritzen diren asko atera direlako hortik. Beraz, erakusketarena interesgarria izan daitekeela uste dut». Saralegik ere ideia aparta dela deritzo. «Leitzan herri kirolari lotua egon da beti, eta non toki bat egokiagoa hori baino erakusketa jartzeko?».

Era berean, bi harrijasotzaileek diote, lanaz gainezka dauden arren, laguntza eskatuz gero ahal duten heinean dakitena erakusten saiatuko direla. «Harria jasotzen hasi nintzenean nire ingurukoengandik ikasi nuen eta orain ere ikasten jarraitzen dut. Ikasten aritu banaiz erakusten ere ariko naiz nahi badut eta ez badut. Nik pauso bat ematen badut eta hori jendearen aurrean egiten badut, hori beti erakusgarri da ikasi nahi duenarentzako. Tarterik baldin badago laguntzen ahaleginduko naiz», dio Perurenak. Saralegiri oraindik deus aipatu ez badiote ere, esku bat botatzeko gogoia du. «Dudarik gabe, ni horretan aritzen naiz egunero Iruñeko gimnasioan eta bata besteari aplikari daiteke».

ez Partzuergoak ezin du erakusketa gordeko lukeen lokalik erosi. Beraz, momentuz hiru hilabeteko erakusketa izanen da eta gero erabakiko da zer egin. Bildutako materiala eta informazioa hor geldituko da eta Udalak edo beste erakunderen batek bere gain hartu nahi badu mintzatu gara. Kirol Federazioari edo Principe de Vianari parte hartzeko aukera eskain diezaietogegü. Museoarena asmo bat besterik ez bada ere, uda bukatutakoan erakusketaren edukiak Partzuergo osatzen duten beste herrietara zabalduko dira. Plazaolako Partzuergoan biltzen dira Larraun eta Ultzama bailaretako herriak eta Leitzan, Lekunberri eta Betelu; orotara, 32 herri. X

◆ Begoña Vicario ◆ Zinemagilea

«Babesik gabe sortutako kaktusa da euskal zinema»

I PES elkarteak antolatuta, Emakumeen Zinemaren XI. Erakustaldia egiten ari dira egunotan Golem zinemetan. Astelehenean hasi zen zikloa, eta gaur amaituko da, Fire filmearekin. Paris was a woman pelikulak eman zion hasiera erakustaldiari, eta, filme horrekin batera, Zureganako grina Begoña Vicarioen laburmetraia ikusi ahal izan zen astelehenean.

Edurne Elizondo / Iruñea

ASTEARTEAN bizkaitarraren *Pregunta por mí* laburmetraia eman zuten eguneko filmearen aurretik, eta Begoña Vicario izan zen, gainera, IPES elkartearen gonbidatua. Bere filmeari buruz ikusleekin hitz egiteko aukera izan zuen ondoren, eta, erran digunez, oso gustuko du hori.

■ **Bi filme ekarri dituzu aurtengo Emakumeen Zinemaren Erakustaldira. Ez da eskaintza makala. Zein asmoz etorri zara?**

Egia esan modu bitxian gertatu dira gauzak. Orain dela bi urte parte hartu nuen beste laburmetraia batekin, *Geroztik ere* izenekoarekin. Uste dut dei egin zidatela askotan hurbileko jendea delako gutxien ezagutzen duguna, topatu ninduten eta interesatu zitzaien. Aurtengoa garbiagoa izan da, Goya irabazi dudanez erreferentzia sendoagoa baitute. Nire asmoa betiere da pelikulak erakustea, oso zaila baita laburmetriak egiten dituzunean zure lanak erakustea, oso aukera gutxi dago. Beti proposatzen didatenean nonbait parte hartzea baietz esaten dut. Eta oso pozik etorri naiz, batez ere aukera izan dudalako nire pelikulei buruz berba egiteko.

■ **Pregunta por mí laburmetraiarekin irabazi duzu Goya saria. Zer esan nahi du horrek zuretzat?**

Oso dibertigarria izan da. Izendatu nindutenean izan zen



Begoña Vicario zinemagile eta irakaslea asteartean izan zen Iruñean.

LUIS AZANZA

bonba bat; uste dut hori ospatu nuela saria baino gehiago. Pentsa, Estatu osoan hiru laburmetraia aukeratzea eta horietako bat nirea izatea ez da makala. Oso pozgarria izan zen. Saria modu bikoitzean hartu dut. Alde batek, kontuan hartuta zinema komertzialak esperimentala ez duela gogoko, harrigarria iruditzen zait saria niri eman izana. Eta bestetik, bultzada izugarria izan da niretzat, konfiantza handia eman didalako, eta jendeak ere konfiantza handiagoa duela-konfiantza nigan. Nire asmoa, dena den, ez da inondik inora luzemetraietara pasatzea.

■ **Zer eskaintzen dizu, bada, laburmetriak alor horretan hain gustura egoteko?**

Normalean zinemari buruz oso ideia zehatzak ditugu, eta zinemari buruz hitz egitean istorioa gogoratzen dugu batez ere, kontatzen duena dugu gogoan. Nik horretan ez dut inolako interesik, ez zait interesatzen istorioak kontatzea. Fikzioa zinemaren ez zait batere interesatzen. Fikzioa interesatzen zait gehiago nire bizitzarako. Pelikuletarako beste zerbait bilatzen dut, eduki estetikoak interesatzen zaizkit, ez istorioa.

■ **Asko hitz egiten da emakumeen zinemari buruz. Zer uste duzu eman diola emakumeak zinemari?**

Nik uste dut zinemari ez zaiola deus eman behar. Egiten dituzun gauzak ikusleak erabiliko ditu bere bizitzarako eta, gainera, gehienak diru publikoarekin eginda daude; beraz, ikuslearenak dira neurri batean. Hortik abiatuta, uste dut garbi dagoela emakumeok ditugula beste interes batzuk, eta, alde horretatik, aukeratzen ditugu bestelako gaiak.

Gaiak bestela tratatzen ditugu, nahiz eta askotan ez igarri.

■ **Eta alderantziz, uste duzu zinemak zerbait eman diola emakumeari?**

Bai, dena dago oso lotua. Askotan, gaur egun, belaunaldi berriek ahazten dute feminismoarekin dugun zorra. Ez ginen izaneren feminismoa izan ez balitz. 50 eta 60ko hamarkadetak borrokan ondorio gara gu, eta horri esker ditugu gaur egun ditugun gauza guztiak. Ildo horretatik, emakumeek ikus-entzunezko medioetara egindako hurbilketa oso garrantzitsua izan da.

■ **Juan Miguel Gutierrezek euskal zinemari buruzko liburua aurkeztu zuen astelehenean, hemen, Iruñean. Salbuespenak salbuespen, zinema komertzialaren bidetara jarraitu diola esan zuen aurkezpenean. Zer deritzozu zuek?**

Euskal Herrian antzezpen arteak ez ditugu ia batere garatu, antzerkigintzan, operan, horrelakoetan oso tradizio gutxi dugu,

eta horregatik da hain bitxia zinemarekin gertatu dena, hainbeste indar izatea euskal zinemak. Eta interesanteagoa da kontuan hartzen badugu euskal zinema arlo askotan dela interesagarria, ez bakarrik esparru komertzialean eta luzemetraietan. Animazio zinemaren, adibidez, hemen ez da inolako tradizioirik egon, baina lekuri garrantzitsuenak Madril, Bartzelona eta Euskal Herria dira. Zinema esperimentalean ere, ez Estatu mailan bakarrik, mundu mailan ere egile oso garrantzitsuak daude Euskal Herrian, hemen ia ezagutzen ez ditugunak eta kanpoan asko baloratzen dituztenak. Beraz, arlo askotan garatu da indar berezi batekin euskal zinema. Nik, euskal zinema definitzekotan, berezitasun hori azpimarratuko nuke, babesik gabe sortu den kaktusa baita, barruko urari esker leku harrigarrietan ere bizi den kaktusa. Bestela, estilo aldetik, uste dut euskal filmeek ez dutela zerikusirik, eta esker hala den. x

s o s l a i a

Lezaman jaioa dela azpimarratu du sutuki Begoña Vicariok bilbotarra den galdetu diogunean. «Herriko pertsona bat naiz», adierazi du. Lezaman jaio eta Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako kanpusean da irakasle, Arte Ederretako fakultatean. Animazioa irakasten du han.

*

Animazioa, dena den, ez da Begoña Vicarioen interesa piztu duen gauza bakarra, bizkaitarrak dioenez, denetarik egin baitu pixka bat: idatzi, musika egin, pintura, eskultura, ahotso landu, ... Leioako fakultatean, hala ere, hamar urte inguru darama jada.

*

Zinemarekiko zaletasuna hizkuntzen bidetik etorri zaio Vicariori, Errusiara egindako bidaiatik, alegia. Azpimarratzen duenez, animazioari buruz asko eta asko ikasi zuen han. Azken hiru urteetan hiru laburmetraia egin ditu: *Geroztik ere*, *Zureganako grina* eta *Pregunta por mí*.

BEKARIO!

Zaldi Eroa

